



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

## **OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULU GUNEA AB – CENTRO DE CÁLCULO DE ÁLAVA S.A. FORU SOZINETATE PUBLIKOAN PRODUKZIO TEKNIKARI LANPOSTU BAT BETETZEKO LANGILE LAN-KONTRATUDUNAREN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK**

**(deialdiaren kodea: 2020001)**

### **LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:**

- Mainframe-aren errendimendua zaintzea eta sistema mantentzeko eta gorabeherak konpontzeko ekintza jakinak egitea.
- Informazio sistemetako eguneroko prozesuak jagotea.
- Prozesuak gauzatzean sortzen diren gorabeherak erregistratzea.
- Funtsezko gorabehera eta eskaerak konpontzea.
- Bankuekin informazioa trukatzeko prozesuak kudeatzea eta oinarrizko gorabeherak konpontzea.
- CPDko produkzio handiko inprimagailuak kudeatzea. Inprimaketa ilarak kudeatzea.
- CPDn dauden hardware elementuen funtzionamendua zaintzea eta hornitzaileen gorabeherak erregistratzea.
- Egindako jardueri buruzko dokumentazioa eguneraturik edukitzea.

### **BIGARREN OINARRIA.- ESKAEREN AURKEZPENA:**

Izangaiek posta elektronikoko bidez bidali beharko dituzte oinarri orokorretako 3.3) atalean eskatzen diren agiriak, honako helbide honetara: [2020001ccasa@forselec.es](mailto:2020001ccasa@forselec.es)

### **HIRUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:**





Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

## **1. FASEA: BERARIAZKO EZAGUTZAREN EBALUAZIOA (40 puntu, gehienez ere):**

**Idatzizko proba: Ariketa teorikoa.** Nahitaezkoa eta baztertzaila, honako hauen gaineko ezagutzan oinarritua:

- Prozesuen plangintza BMC Control M-ekin
- Z/OS, Linux eta Windows sistema eragileak
- EDITRANekin fitxategiak trukatzea
- Cobol - CICS - DB2 sistemak

Gehienez ere, 40 puntu emango dira.

Ariketaren xedea hauxe izango da: epaimahaiak ezarritako epearen barruan, galdetegi bati idatziz erantzutea (aukera anitzeko erantzunak).

Ariketa zuzentzerakoan, zuzen erantzundakoen kopuruari akatsen kopuruaren herena kenduko zaio ( $E = Z - A/3$  <sup>1</sup>); hala, gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira, hots, 40 puntuko balioespenaren baliokidea. Erantzun gabeko galderengatik ez da zigorrik egongo eta erantzun bikoitzak erantzun gabekotzat joko dira. Azken balioespena ehunenetan<sup>2</sup> moztuko da.

Egindako ariketen egilea nor den jakin baino lehen, proba gainditzeko beharrezkoa den gutxieneko zuzeneko puntuazioa zehaztu ahalko du epaimahaiak.

## **2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALIOESPENA (35 puntu, gehienez ere):**

1. fasea gainditzen dutenak bakarrik igaroko dira fase honetara.

### **A) Bete beharreko eginkizunekin lotura duten titulazioak (15 puntu gehienez):**

- Sareko Informatika Sistemen Administrazioako edo Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi-mailako heziketa zikloak, edo lehengo goi-mailako LH baliokidea: 15 puntu
- Goi mailako beste heziketa zikloak: 10 puntu
- Ingeniaritza, Informatika, Fisika, Kimika edo Matematikako unibertsitate titulua: 5 puntu.
- Gainerako unibertsitate tituluak: 0 puntu

<sup>1</sup> E=Ariketaren emaitza, Z=Zuzen erantzundako galderak, A=Erantzun akastunak

<sup>2</sup> Mozteak esan nahi du dezimal jakin batetik aurrera dezimalak kentzea, biribildu gabe. AKGSaren kasuan, bigarren dezimalek aurrera. Esate baterako: 4,171 eta 4,179 hemen moztuko dira: 4,17.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

## B) Hizkuntzak (4 puntu):

### B.1) Hizkuntza: euskara (2 puntu, gehienez ere):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
  - B1: 0,5 puntu.
  - B2: puntu 1.
  - C1: **1,5 puntu.**
  - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

### B.2) Hizkuntza: ingelesa (2 puntu, gehienez ere):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
  - B1: 0,5 puntu.
  - B2: puntu 1.
  - C1: **1,5 puntu.**
  - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

## C) Esperientzia (16 puntu gehienez):

- Eskatutakoaren antzeko lanpostuetan izandako lanbide esperientzia balioetsiko da.
- 0,33 puntu azken 4 urtean kontratatuta zeregin hauetako bat gutxienez egiten egondako hilabete bakoitzeko, gehienez ere 16 punturekin.

➤ Z/OS sistemak monitorizatzea





Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Saioak kudeatzea EDITRANekin
- Lanen plangintza Control M-ekin

- Lan esperientziako urteen kopurua alegatutako aldien egunak batuz zenbatuko da. Urteko kopurua 360 egunekoa izango da.
- Lan esperientziaren puntuazioa lan hilabete osoen zatikiez esleituko da eta ez da inolako proportzionaltasunik aplikatuko hilabetetik beherako aldiengatik.
- Prestakuntza edo tutoretzapeko praktketan emandako denbora ez da inoiz kontuan hartuko.

Egokitzat joz gero II. Eranskina Erreferentzia Profesionalak izeneko eranskineko informazioa egiaztatzea, AKGSAk beretzat gordeko du zerbitzu eman zaien enpresa edo organismoek jaulkitako ziurtagiria eskatzeko eskubidea. Helburua da egiaztatzea zer antz daukaten emandako zerbitzuek deialdian eskainitako plazarekin. Horretarako, irizpide hauek hatuko dira kontuan:

- Betetako lanpostuaren izena.
- Kontratatuta egon den aldien hasiera eta amaiera datak.
- Lanaldiaren ehunekoa.
- Lanpostuaren eginkizunen eta langileari esleitutako egitekoen zerrenda.
- Bi ziurtagirien artean kontraesanik egonez gero, Gizarte Segurantzaren ziurtagiria balioetsiko da lehentasunez.

### 3. FASEA: LANPOSTURAKO EGOKITASUNARI BURUZKO PROBA

- Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da (GAI – EZ GAI).
- 1. eta 2. faseetako emaitza orokorrean 4 puntuazio onenak lortu dituzten izangaiei egingo zaie proba.
- Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna balioesteko xedez.
- Forselecek txosten zehatza egingo du, 4 puntuazio onenak lortu dituzten izangaiei elkarrizketa egin ostean.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Gaitzat jotzen diren izangaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKGSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den epaimahai kalifikatzaileko kideen aurrean.
- Inor EZGAI gertatzekotan, probak egingo zaizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsonei, eta hurrengo fasera (4.era) pasatuko dira gaitzat jo eta lau puntuazio onenak dituztenak.

#### 4. FASEA: ELKARRIZKETA PERTSONALA (25 puntu, gehienez ere)

- Nahitaezkoa.
- Elkarrizketa pertsonala egingo zaie 3. fasean gaitzat jo diren eta 1. eta 2. faseetako emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten 4 pertsonei.
- Elkarrizketa epaimahaikideek egingo dute AKGSaren egoitza sozialean, eta ardatz izango ditu lanpostuko trebetasun orokorrak eta zeharkakoak.
- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.

#### FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA				3. FASEA	4. FASEA	GUZTIR A
	Titulazioak	Hizkuntzak	Esperientzia	GUZTIRA			
40	15	4	16	35	E/A	25	100